

# TROKONIZ

– ARABA / ÁLAVA –

Herri txiki hau Iruraitz-Gauna udalerriaren barruan dago, Aguraingo kuadrillan, eta Gasteiztik 11 km-ra dago. Herriaren izena Donemiliagako Rejako agirian aipatuta azaltzen da, *Hiraszaeza* barrutiaren barruan; eta, han zehazten denez, bi golde-burdina ordaintzen zituen. Horrez gain, Jeronimo Aznarrek ere aipatzen du 1257ko agirian.

Este pequeño pueblo pertenece al ayuntamiento de Iruraitz-Gauna, dentro de la Cuadrilla de Salvatierra. Dista 11 km de Vitoria-Gasteiz. Su nombre aparece citado ya en el documento de la Reja de San Millán, dentro del Alfoz de Hiraszaeza, pagando dos rejas, y también lo cita el documento de don Jerónimo Aznar en 1257.


## *San Bizente Martiria eliza / Iglesia de San Vicente Mártir*

**S**AN BIZENTE PARROKIA gain batean dago. xv. mendeko eraikina da, gurutze latindarreko oinplanoa du, portada, eliza-ataria, eta xvi. mendeko kanpai-dorre bat

**E**LEVADA SOBRE UN PROMONTORIO, la parroquia de San Vicente es un edificio del siglo xv de planta de cruz latina con portada, pórtico y espadaña, del siglo xvi,


*Ikuspegi orokorra / Vista general*





*Oimplanoa / Planta*

*Ekialdeko altxaera / Alzado este*



oinetan. Jatorrizko eraikin erromatarretik harlandu ondo ebakiz egindako abside erdizirkularrak iraun du. Abside horrek bi zutabe-erdi ditu atxikita –horietako bat atzapar itxurako harroin baten gainean jarrita–, eta kontrahorma moduan jokatzen dute. Baina euste-lan garrantzitsuena egiten duena da, zoritxarrez absidearen erdian erantsi zen beste kontrahorma bat; izan ere, leiho erromaniko bat hormatzen du. Leiho horretatik, inpostaren zati batek eta eskuinaldean gordean dagoen landare-motibodun kapitela baten arrastoek baino ez dute iraun gaur arte. Absidearen ezkerretara beste leiho txiki bat dago, geroagokoa izan daitekeena. Burualde osoa xake-apaindurak dituen inposta batek zehartzen du.

Burualde erdizirkular horiek nabarmen ageri dira inguru horretako tenpluetan; esaterako, antzekoak dituzte hurbileko zenbait elizak: besteak beste, Argandoñakoak, Burgelun dagoen Arraingo San Joaneakoak, Gazeokoak edota Alaitzakoak. Argi bereizten dira, beraz, burualdea zuzena duten elizetatik.

Tenpluaren oinetan ia, eskuinera eta kanpai-dorretik hurbil, arku zorrotz bat dago hormatuta; eta kanpai-dorrean bertan saietera batzuk daude. Gainera, ematen du eraikin gotiko osoak horma erromanikoen zati asko erabili zituela.

Testua eta argazkiak: REA - Planoak: DGMA

a los pies. Del primitivo edificio románico se ha conservado su ábside semicircular de sillares bien cortados, con dos medias columnas adosadas –una de ellas descansa en una basa con garras– que actúan como ligeros contrafuertes. El apoyo más importante lo ejerce un tercer contrafuerte postizo colocado lamentablemente en el centro del ábside, puesto que tapia una ventana románica de la que sólo se conserva parte de la imposta y restos de un capitel vegetal oculto en el lado derecho. En el lateral izquierdo del ábside se encuentra otra pequeña ventana que podría ser posterior. Toda la cabecera está recorrida por una imposta con decoración de ajedrezado.

Estas cabeceras semicirculares se extienden significativamente por los templos de esta zona, como se puede observar en las cercanas iglesias de Argandoña, San Juan de Arrarain en Elburgo, Gazeo o Alaitza, diferenciándolas del grupo que mantiene la cabecera recta.

Casi a los pies del templo, en el lado derecho y cerca de la espadaña, se aprecia un arco apuntado tapiado, y en la propia espadaña unas saeteras. Además, toda la construcción gótica parece que utilizó gran parte de los muros románicos.

Texto y fotos: REA - Planos: DGMA

### *Bibliografía / Bibliografía*

BILBAO LÓPEZ, G., 1994, p. 132; LÓPEZ DE GUEREÑU, G., 1962, pp. 511-512; PORTILLA VITORIA, M. J. *et alii*, 1975, p. 588; VEGAS ARAMBURU, J. I., 1986, pp. 66-69.